
AKESOLO'TAR LINO

Bizkaiko Dima, Oba auzoan,
bakez egon baserria,
zugatz lerdenez inguraturik,
guraso maiteen etxia;
lepo aldetik zaindari legez
arkaitz illeda zuria,
ongi etorri, ots egiñagaz
Euskalerriko loria.

Baserritar lez beiak jagoten
gurason esanean,
aurrez aur, eukan Gorbei aundia
erraldoi baten antzean;
Jainkoa egon zuri begira
euskaldun mutil artean,
ta goiz on baten dei egin eutzun
maitasunezko itzean.

Ta nork uts egin Aita Onari
biziaren Jaubeari,
bere berbea argia bai da
munduarentzat gidari;
Oba guztia Berak egiña
on eiteko gizonari,
emen naukazu Aita maitea,
artu naizu serbitzari.

Zoragarria otseintz apala,
egin dozuna lurrian,
Jaungoiko Jauna Euskalerriaz
alkartu dozu bidian;
egunik egun, aspertu barik
jorratu zendun lanian,
gure izkuntza aberastuaz
urregorrizko izkian.

SOLOZABAL'tar PAULIN

ERRALDOI BATERI

Oba'ko abi goitarrean
asi zan bere bidaia,
Begoña Karmeldegian
etorri yakon amaia.
Euskerea zan beretzat
landu bear eban gaia,
aztutako Errauskiñea,
maitasunaren ibaia.

Larrosaren biderik ez
aren ibilte luzea,
irribarre bat noizbeinka
baita askotan oiñazea.
Ezagutu eban iru urtez
espetxekeo naigabea,
eta gero epe luzean
ogi baltzako erbestea.

Sutean bakar-bakarrik
zetzan euskera maitia,
danok aztuta gaixoa
gure lilitxu isiltia.
Biotzean aditu eban
aren aiene geldia,
ta eskiñi eutsan betiko
bere maitasun bizia.

Oiñazez geratu gara
maite-maite genduanak,
nork bete aren utsunea,
nork egingo aren lanak...?
Banan-banan ikusten doguz
gure euskaltzale joanak,
noiz etorriko, ai ene,
kimu barrien laztanak...?

Zutunik amaitzen dira
basoetako tantaiak,
euskeraren alde ekiñez
gure Euzkadi'ko erraldoiak.
Apal eta isil-isillik
badoaze gure anaiak
obian besarkatzeko
ama lurraren erraiak.

Begietara malkoak,
biotzean nigarrak,
euskereari darioz
pairamenezko didarrak.
Bera lez galdutakoak
zeruan doguz izarrak,
zaindu begie euskerea,
zaindu begiez geutarrak...!

Oiñazez yabilku
arima negarrez,
andia zan bera
euskal maitasunez.
Erraldoi sendoa
apal eta isillez,
beragan onena
euskereari emonez.

Gure Akesolo'tar Lino,
agur biotzetik,
geugan iraungozu
betiko bizirik.
Egun Andirarte
Jaunagan baturik,
artu gure otoitzak
samurrez beterik.

ZUBIRI'TAR IÑAKI